

Noka aritzeko ohitura galtzen ari zela ikusita, Ingo Xonau proiektua sortu zuen iaz Oñatiko Badihardugu euskara elkarteak. Besteak beste, Hikalaguna egitasmoa jarri dute martxan aurten.

Kafe baten bueltan, noka

Beste herri askotan gertatu den bezala, noka egiteko ohituraren transmisioan eten bat egon da Oñatin (Gipuzkoa) ere. Ez dago galduta, oraindik badagoe-lako dakien eta erabiltzen duen jendea, baina 55 urtetik beherakoen artean oso gutxi entzuten da, bai behintzat eremu publikoan. «Hizkera desprestigiata izan da: baserritarren eta ezjakinen hizkeratzat hartua. Guraso askok seme-alabei ez diete hika egin. Bereziki alabei. Izan ere, emakume finentzat ez zen aproposa», esan du Idoia Etxeberria Ingo Xonau proiektuko kideak. Emakumeen hitanoa kinka larrian zegoela ikusita, iaz sortu zuen noka sustatzeko proiektu hori Oñatiko Badihardugu euskara elkarteak.

Lehenik eta behin, elkarriketak egin zizkieten 54 herritarri, Oñatiko noka jasotzeko, eta lekukotza horiek pixkanaka *ahotsak.eus* webgunean jarriz joan dira. Zenbait ikus-entzunezko ere prestatu dituzte, horien artean noka aritzea galdu izanaren arrazoiak azaltzen dituen dokumental labor bat. Iaz, ikerketa diag-

nostiko txiki bat ere egin zuten, baserri auzoetan, hika dakiten emakumeak zenbat eta zer adinetakoak diren jakiteko eta ezkutu dagoen mundu hori ikusarazteko. «Herriko hamasei baserri auzoetan ibili ziren datu biltzaileak. Eraitza izan da gutxienez 370 emakumek dakitela hika Oñatin, herrigunea kontuan hartu gabe. Noka bizirik dago, beraz». Eta, erabilera sustatzeko, *Ingo xonau?* dioten txapak ere atera zituzten.



Gaur egun, hitanoa ez dago gaizki ikusita; gazteentzat erakargarri izan daiteke hika egitea: identitate marka bat»

Idoia Etxeberria
Ingo Xonau proiektuko kidea

Aurten, berriz, Hikalaguna egitasmoa jarri dute martxan. Mintzalagun taldeak dira, baina zuka ez, hika aritzen dira. «Otsailean ipini genuen martxan, eta oso harrera ona izan zuen: hirurogei la-



Oñatiko Hikalaguna egitasmoan parte hartu duten zenbait herritar. BERRIA

gunetik gora animatu ziren. Adinez ere, 16 urtekoetatik hasita, denetik zegoen, eta gehienak emakumeak ziren». Etxeberriak kontatu duenez, dakitenak eta ikasi nahi dutenak elkartu zituzten, eta, sei taldetan banatuta, as- tean behin ordubeteko mintza- praktika egiten hasi ziren, Oñati- ko tabernetan. Talde bakoitzak erabakitzen zuen non eta noiz ge- ratu.

COVID-19ak, ordea, neurri ba- tean zapuztu egin zuen egitas- moa. «Gehienek biltzeari utzi zioten, bakan batzuk mintza- praktika birtualak egiten ere hasi ziren arren». Irailean berriro saiatu ziren Hikalagunari bultza- da bat ematen, eta bost talde sor- tzea lortu zuten, baina, orain, gel- dirik dago berriz ere egitasmoa. Hala ere, jarraitzen dute noka sustatzeko ahaleginetan. Orain

gutxi Oñatiko hika poltsikaran izeneko liburuxka argitaratu dute.

Aditzak, patrikan

Hitanoari buruzko oinarritzko in- formazioa eta aditz taulak biltzen ditu, eta ilustrazioekin eta adibi- deekin osatu dute. «Mirari Sagar- zazu marrazkilariak egin ditu ilustrazioak, eta ederki geratu da. Mimo handiz egin dugu. Gainera, poltsikoan eramateko moduko neurria dauka: 10x10 zm». Beste- ak beste hikalagunen artean, hika ikastaroetan eta ikastetxeetan ba- natuko dute, eta sarean ere bada- go deskargatu nahi duenarentzat. Horretaz aparte, *Oñatiko hika. Txuletia* eskuorria ere atera dute, gehien erabiltzen diren aditzekin. Herriko etxe guztietara banatu dute, *Kontzejupetik* herri aldiz- kariaren batera. Jabetze Eskolan

emakumeentzako hika ikastaroa antolatzea izan da aurtengo beste proiektuetako bat.

Etxeberriaren esanetan, Ingo Xonau proiektuak sortu du inte- resa herrian. «Badago mugimen- dua. Proiektua hasi zenetik, ba- naka batzuek ikasi edo aktibatu ere egin dugu. Alde daukaguna: gaur egun hitanoa ez dagoela gaizki ikusita, sasoi batean bezala. Gazteentzat erakargarri izan dai- teke hika egitea, identitate marka bat». Noka ez bezala, toka sendo ikusten du herrian, baita gazteen artean ere.

Hitanoa sustatu nahi duten bes- te elkarte batzuekin ere badute harremana Oñatikoei. Gabirian (Gipuzkoa), Errenterian (Gipuz- koa), Orion (Gipuzkoa), Donos- tian, Baztanen (Nafarroa), Arra- tian (Bizkaia) eta abar antolatu izan dituzte halako egitasmoak.